# XIV. IDAZLAN KOADERNOA




## LEHEN HEZKUNTZA 2015

GERNIKA-LUMO

XIV. IDAZLAN KOADERNOA

Ipuin zoragarriak

Lehen Hezkuntza
GERNIKA-LUMO
2015


## edizioa

Argitaratzailea:
• **Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua eta Hezkuntza Saila.**

Laguntzaileak:
• **Allende Salazar Ikastetxea.**
• **Barrutia Eskualde Ikastetxea.**
• **Mertzede Ikastetxea.**
• **San Fidel Ikastola.**
• **Seber Altube Ikastola.**

Portadaren egilea:
• **Maddi Mugira Elortza**
(LH 3. mailako ikaslea)

Babesleak:
• **Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila** (HPS)
• **Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila**
(Euskara Zuzendaritza)

Diseinua eta maketazioa:
• **11barri**

Inprimaketa:
• **Lizaso Grafikak Zornotza**


## hitzaurrea

*«Urruneko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau»:* esaera zaharrek usadioetan, denboraren joan-etorrian dauden gertakarien behaketak damaigun jakiturian errotzen dute euren egia. Baina buelta emango bagenio atsotitzari, ez al luke, baita, bete-betean egia esango? Zein da, bada, **Idazlan Koadernoen** errealitatea, oparotasuna baino?

*«Urruneko intxaurrak… lau?»* esango zukeen norbaitek lehen edizioa erditzean, denboraren poderioz koaderno jaioberriek indarra galduko ote zuten beldurrez. Arnasa sakon hartuta, baina, esan dezakegu urruti heldu garela, eta intxaurrak hamalau ditugula, eder eta osasuntsu, euren XIV. edizioan. Ze lagungarri izan dezakegun metafora!

Zorionak, berriro ere, uzta pozgarri hau posible egin duzuen guztioi. Zorionak, eta eskerrik asko!



Naiara Urberuaga Erkoreka
*Kultura, Euskara eta Hezkuntza zinegotzia*

# IDAZLAN KOADERNOAK 2015

## LHkoen IRAKURKETA EKITALDIA

2015eko MARTXOAren 17-18an
GERNIKA-LUMOn •
LIZEO ANTZOKIAN, 11:00etan





| IZENA | MAILA | IPUINA | orr. |
|---|---|---|---|
| Iradi Bilbao Baranda | L.H. 1. | «*Txakur Berria*» | **7** |
| Uxue Hormatxea Arrien | L.H. 2. | «*Laia zaldikumea*» | **9** |
| Pello Arrarte Goikoetxea | L.H. 2. | «*Jonny eta balea*» | **10** |
| Almike Argarate Zabala | L.H. 2. | «*Arkatz magikoa*» | **12** |
| Araiz Vallejo de Olejua Arguinzoniz | L.H. 2. | «*Henry eta Bob*» | **14** |
| Ekain Aranaz Izagirre | L.H. 2. | «*Ane, urrezko ezkertia*» | **15** |
| Naia Arrazua Uribe | L.H. 2 | «*Afrikako elefante zuria*» | **16** |
| June Gisasola Gandiaga | L.H. 2. | «*Itsaso*» | **17** |
| Laida Madariaga Fundazuri | L.H. 2. | «*Betoberen istorioa*» | **19** |
| Markel Bergara Apaolaza | L.H. 2. | «*Espazioan*» | **21** |
| Amaia Zubillaga Salces | L.H. 3. | «*Dragoi erraldoia*» | **23** |
| Naiara Gonzalez Perez | L.H. 3. | «*Elurrezko panpina*» | **25** |
| Abodi del Val Erezuma | L.H. 3. | «*Lugi hartza*» | **27** |
| Nora Uriarte Aranguena | L.H. 3. | «*Harri magikoa*» | **xx** |
| Ander Moreno Aurtenetxea | L.H. 4. | «*Zirku ikusgarria*» | **29** |
| Unax Uribe Olasolo eta Iker Lopez | L.H. 4. | «*Jon mendizalea*» | **31** |
| Garazi Fernández Zuloaga | L.H. 4. | «*Aneren ametsa*» | **33** |
| Ekain Albizu Otazua | L.H. 4. | «*Bronkaren beldurrez*» | **35** |
| Iraide Plaza Xxxxx | L.H. 4. | «*Lagun minak*» | **38** |
| Anne Lamikiz Artetxe | L.H. 4. | «*Olentzero badator*» | **40** |
| Gorka Aldana Aldekoa | L.H. 5. | «*50 zauri baino gehiago*» | **44** |
| Beñat Zobaran Diez | L.H. 5. | «*Everest*» | **47** |
| Iraia Aranbarri Musatadi | L.H. 5. | «*Filipinaseko uholdea*» | **50** |
| Iera Larrinaga Vergel | L.H. 5. | «*Denboran zehar*» | **53** |
| Daniel Mendoza Dorado | L.H. 6. | «*Martinen abentura*» | **60** |
| Maule Donoso Bilbao | L.H. 6. | «*Domina bat*» | **62** |
| Alex Barrena Garay | L.H. 6. | «*Harrizko hiria*» | **65** |
| Naroa Sen Musatadi Larruzea | L.H. 6. | «*Ametsa ala egia*» | **68** |
| Oihane Lopez Bilbao | L.H. 6. | «*Xokoaren izena*» | **71** |
| Gorka Arrola Zubiaga | L.H. 6. | «*Udarik onena*» | **75** |



L.H. 1. maila

Iradi Bilbao Baranda

«Eskolan gauza berriak ikastea da gehien gustatzen zaidana»

# «Txakur Berria»

## TXAKUR BERRIA

Maitaneren etxe ondoan animalien denda bat zegoen. Maitaneri asko gustatzen zitzaizkion txakurrak, horregatik eskolara joaten zenean txakurrei begira gelditzen zen.

Egun batean, eskolarako bidean Maitanek txakur berri bat ikusi zuen dendan. Txakur kumea beltza eta zuria zen. Begiak ere beltzak eta distiratsuak zituen. Maitane txakurrari begira geratu zen eta nahiz eta oso polita izan, aurpegi tristea zuela nabaritu zuen. Hala ere, txakurrak Maitane ikusi zuenean, pozez buztana mugitu zuen eta handik aurrera lagun handiak egin ziren.

Gau batean, lapur batek dendako txakur guztiak lapurtu zituen. Hurrengo goizean,



Maitanek gertatutakoaren berri izan zuenean oso triste jarri zen.

Bi aste beranduago, lapurra lo zegoela, txakur kumeak ihes egitea lortu zuen eta dendarantz abiatu zen. Gaua zenez ez zuen Maitane ikusi eta dendako atearen aurrean gelditu zen Maitaneren zain.

Goizean, Maitane eskolarantz zihoala, txakurra dendako atean ikusi zuen.

Biak oso pozik jarri ziren eta Maitanek txakurra etxera eramatea erabaki zuen.

Gainera Beltzi izena jarri zion. Egia zan ala ez bazan, erosketak egin Gernikako plazan.





Uxue Hormatxea Arrien

«Niri gehien gustatzen zaidana zaldiaren gainean ibiltzea da»

# «Laia zaldikumea»

LAIA ZALDIKUMEA

Behin batean, Eguzki-Lore izeneko baserri batean, Aitor eta Maria bizi ziren. Aitorrek ikuiluan animalia asko zituen: zaldiak, oiloak, untxiak, ahateak, behiak, txerriak... Mariak etxeko lanak egiten zituen.

Igande goiz batean, Aitorrek zarata handia entzun zuen ikuiluan: txakurrak zaunkaka, oilarrak kukurrukuka, txerriek kurrin-kurrinka, behiek marru-marruka...

-Zer gertatzen da gure ikuiluan? -galdetu zion Aitorrek Mariari.

-Ez dakit; goazen ikustera -erantzun zion Mariak.

Ziztu bizian biak ikuilura abiatu ziren. Heldu zirenean bat-batean animalia guztiak isildu egin ziren. Baina Baranda izeneko behorra ez zen isiltzen eta horregatik konturatu ziren zaldikumea jaiotzeko zegoela.

Aitorrek berak bakarrik ezin zuenez Baranda behorrari lagundu, albaitariari eta auzokoei laguntza eskatu zien. Behorra indarka eta indarka hasi zen eta denen laguntzarekin Laia moxala jaio zen.

Denok ikusi zutenean dena ondo irten zela, oso pozik jarri ziren eta saltoka hasi ziren. Jaiotza ospatzeko Mariak eta Aitorrek hamaiketako ederra prestatu zuten denontzat.

Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta irten dadila Busturiko plazan.





Pello Arrarte Goikoetxea
«Handitan paleontologoa izango naiz»

# «Jonny eta balea»

JONNY eta balea

Aspaldian, hainbat eta hainbat bale
zeuden gure itsasoetan.
Arrantzale asko,
urrutira joaten
ziren balearen bila.
Goiz batean, Jonny
izeneko arrantzale bat
uretara jausi zen eta
beldurtu egin zen, baleak jango zuela pentsatu zuelako.
Bapatean, bale bat agertu zen eta kili-kili gozo-
gozoak egiten hasi zitzaion eta alde egen zuen.
Orduan, Jonny, baleak onak zirela konturatu zen.
Harrezkero erabaki bat hartu zuen:
"inoiz balerik ez arrantzatzea"







Almike Argarate Zabala
«Niri bizikletan ibiltzea gustatzen zait eta idaztea»

# «Arkatz magikoa»




Behin batean arkatz bat
faruko etxe batera
etorri zen bizitzera.
Arkatz h. handia eta
magikoa zen eta
ume batzuk...
nahi zuten idatzi.
Ezin zuten baina,
umeak txikiegiak
ziren eta arkatza handiegia.
Orduan umeek zorroztu egin
zuten punta txikia baitzuen. Ostean, arkatzak
magia egin zuen umeak apurtxo bat handiago
bihurtu zituen. Egun haretatik aurrera, umeak
marrazkilari bilakatu ziren, ipuin asko idatzi
zituzten. Faruko marrazkilari taldea deitzen da.

Hala bazan edo ez bazan sar dadila
faruko parkean.



Araiz Vallejo de Olejua Arguinzoniz

«Niri gehien gustatzen zaidana
oporretan urrun-urrun joatea da»

# «Henry eta Bob»

## HENRY ETA BOB

Henry piratak hilabeteak daramatza Dalmandia Uhartean altxorraren bila. Bitartean, Bob Kapitaina ere altxor beraren bila ari da inguru horretan.

Elkarrekin topo egiten dutenean, eztabaida handiak dituzte.

-Nirea da altxorra!- dio Henry Kapitainak.

-Bai zera! Altxor hori nik aurkituko dut- erantzuten dio Bobek.

Luzaroan dabiltza altxor hori bilatzen, baina ez dute aurkitzen. Egun batean, Henryri Boben laguna izatea bururatu zitzaion. Orduan, elkartu eta bien laguntzaz altxorra aurkitu zuten.

Lagun bat edozein altxor baina garrantzitsuagoa zela ohartu ziren.





Ekain Aranaz Izagirre
«Gehien gustatzen zaidan kirola futbola da eta lagunekin jolastea atsegin dut»

# «Ane, urrezko ezkertia»

ANE, URREZKO EZKERTIA

Behin batean Ane izeneko neska bat Bilbora joan zen bizitzera. Saskibaloia asko gustatzen zitzaion.
Egun batean parkera joan zen eta mutiko bat ikusi  zuen futbolera jolasten.
Anek pentsatu zuen futbola oso dibertigarria zela.



Futbola ikusten erabaki zuen. Horregatik esan zion bere aitari ea ahal bazuen futbol taldean apuntatu.
Hurrengo egunean parkera joan zenean bere lagunak ikusi zituen eta esan zuen futbol taldean apuntatuta zegoela.
Anek partidu bat nahi zuen eta baloia eskuekin hartzen hasi zen golak sartu arte. Bere lagunek futbolaren arauak irakatsi zizkioten eta Anek ulertu egin zituen. Handik aurrera 3 gol sartu zituen Anek eta "urrezko ezkertia" deitu zioten.



Naia Arrazua Uribe
"Lagunekaz egotea gustatzen jat"

# «Afrikako elefante zuria»



AFRIKAKO ELEFANTE ZURIA

Behin batean Afrikan elefante bat jaio zen. Beren amak ikusi zuen zuri-zuria zela eta orduan Argi ipini zion izena. Argi oso elefante polita eta dezberdina zen. Beren lagun guztiak grisak ziren.

Goiz batean, kamioi handi bat etorri zen eta Argi eraman zuten. Argiren ama kamioiaren atzetik korrika joan zen kamioia gelditu arte, zirku baten aurrean zeuden. Gizon haiek Argi barruan sartu zuten.

Argiren amak leiho batetik ikusi zuen argi triste-triste. Zerbait egin behar zuen!

Orduan, bere buru gainean txinmino bat jarri zen, berari laguntzeko prest.

Gaua heldu zenean txinminoak Argiren kaiola ireki eta beren amaren albora eraman zuen.

Honela Argi eta beren ama etxera bueltatu ziren. Gero Argiren amak buztinarekin eta Argi margotu zuen, honela elefante txikia beren lagunen modukoa bihurtu zuen.

Gizon haiek ez zuten Argi zuria aurkitu.



June Gisasola Gandiaga
«Atsegin dut lagunekin jolastea»

# «Itsaso»

## Itsaso

Behin batean, bazegoen neskato bat Itsaso izenekoa. Itsaso oso ederra zen, baina arazo bat zeukan, bera mendian bizi zen. Horregatik eskolara joateko asko ibili behar zuen eta normalean eskolara berandu iristen zen beti. Egun batean, eskolara zihoala otso batekin topo egin zuen. Itsaso, berehala, konturatu zen otsoak jan nahi zuela. Korrika egin ondoren eskolara inoiz baino arinago heldu zen. Lagunei gertatutakoa kontatu zien. Hauek ez zien sinestu, gezurra zela pentsatu zuten. Hurrengo egunean eskolako kideek Itsasoren etxeraino txango bat egiten zutenean otsoa agertu zen berriro. Bapatean ahots batzuk entzun zituzten, Itsaso zen oihuka:

-Otsoa datorrela....!!!!

Beste egun batean eskolara iristean, kideek Itsasori ezuste bat eman zioten. Eskolaren ondoan etxe bat egiten hasi ziren Itsasorentzako. Itsaso pozaren pozez lagunei etxea amaitzen lagundu zien. Handik aurrera, neguan, Itsaso eskolaren ondoan bizi zen. Baina udako oporretan lagunekin mendiko etxera joaten zen.





Laida Madariaga Fundazuri
"Nire lehengusina eta lagunekin jolastea gustatzen zait"

# «Betoberen istorioa»

BETOBEREN ISTORIOA

Bazen behin txakur maitagarri bat. Betoben zuen izena
Handia, polita eta maitagarria zen.
Bere lagunek oso jatorra zela esaten zioten eta bere jabea, Anek, asko
maite zuen. Egun batean mutil bat joan zen bere etxera eta
txakurra eraman nahi zuen. Anek ez zuen nahi eta Aneren gurasoek
bai. Anek mutilari aurre egin zion Betoben ez eramateko. Orduan

Txakurraren lagunak agertu ziren eta mutila ikaratuta
joan zen. Aneren gurasoak haserretu egin ziren berarekin
ez zutelako nahi Betoben beraiekin bizi izatea. Orduan
Anek pentsatu zuen Betoben aitite eta amamaren etxera
eramatea.

Bere gurasoek ados egon ziren Aneren proposamenarekin
eta txakurra aitite eta amamaren etxera joan zen bizitzera.

Ane egunero joaten zen bisita egitera eta Betoben oso pozik jartzen zen. Bere lagunak ere egunero joaten ziren berarekin jolastera eta amamak beti ematen zion gozokiren bat jateko.

Aititek eta amamak asko maite dituzte animaliak eta horragaitik oso ondo zaintzen zuten txakurra.

Hortik aurrera Betoben zoriontsu bizi izan zen beti eta Ane ere bai, bazekielako bere txakur maitagarria oso pozik bizi izango zela bere etxe berrian.





## Markel Bergara Apaolaza

«Gehien gustatzen zaidana lagunekin egotea da"

# «Espazioan»

Espazioan

Atzo arratsaldean neure gelan nengoen neure kotxe, hegazkin eta kohetekin jolasean. Nire koheta unibertso guztiko indartsuena eta politena zen. Halako batean konturatu nintzen neuk gidatzen nuela koheta. Izarren artean nenbilen. Kohetarekin planeta batetik bestera ilili nintzen. Eguzkitik oso hurbil nengoenean atzeko aldean burrunba zalaparta entzun zen. Leihora begiratu nuen eta planeta urrun bateko patruila bat ikusi nuen. Beraien ontzira eraman ninduten. Beraien planetara eraman ninduten eta hitz egiten hasi ziren. Ez nien ezer ulertzen eta kartzelara sartu ninduten. Hirurogei egun egon nintzen kartzelan. Lau bider eskatu nien askatzeko, bostgarrenean tratua egin genuen:

- Kohetean emango zaituet zuek etxera eramaten banauzue, ongi?- Eta etxera eraman ninduten afaltzeko.





Amaia Zubillaga Salces
"Nire ahizparekin jolastea gustatzen zait"

# «Dragoi Erraldoia»

## DRAGOI ERRALDOIA

Bazen behin, dragoi erraldoi, hegalari eta jatun bat, Peru deitzen zena. Bi metroko hegoak zituen. Afrikan bizi zen.

Peru beti kexatzen zen Afrikan egiten zuen beroaz. Baina Asiatik migratzen ziten txoriek beti kexatzen ziren bertako hotzaz. Horregatik Peru, Asiara joan zen Afrikako bero handiari eta belar sikuari ihes egiteko.

Asioko mendi baten tontorreraino iritsi zen. Bertan zegoen landare berezi bat jan zuen, 5.000 metrotik gora bakarrik irtetzen zana eta apurka-apurka txikitzen joan zen.-Baina, baina, ze demontre da hau? Perretxiko baten tamaina daukat!

Egun batean, Peru belar fresko-freskoa jaten ari zen eta halako batean... glunuppp!



Igel batek irentsi zuen gure Peru Koitxadua! Orduan, gure dragoitxoa haserretu egin zen. Baina sabela erre zion bere ahoko suarekin eta ihes egin zuen hegaz. Asia guztitik ibili zen hara eta hona, landareren bat aurkitzeko bere tamaina erraldoira itzultzeko. Baina nekatuta zegoen eta gose zen. Horregatik, parke batean gelditu zen. Petisuisa ikusi zuen lurrean botata. Den-dena jan eta bat-batean, gorputz guztian kili-kiliak sentitzen hasi zen.

-KKKKoooonnnttttxxooo, uuuuoooopppp! Bere betiko tamaina erraldoira bueltatu zen. Oso pozik jarri zen. Baina Asia oso arriskutsua zela pentsatu zuen eta Afrikara itzuli zen, belarra sikua izan arren.

Hala bazan edo ez bazan, joan parrandan eta etorri bueltan.







Naiara Gonzalez Perez

"Niri gehien gustatzen zaidana zelai-errera eta saski baloira jolastea da"

# «Elurrezko panpina»

## ELURREZKO PANPINA

Egun batean herri txikitxo batean hiru lagun bizi ziren Leire, Aitor eta Jone izenekoak. Negua zen eta gauean elurra egin zuen.

Biharamunean Leire, Aitor eta Jone kalera irten ziren eta elurrezko panpina bat zegoen eta guzti begira zeukaten irribarretsu.

—Bai panpina polita! Nork egin ote du? —galdetu zuen Aitorrek.

—Hotz izango da, txanoa utziko diot! esan zuen Jonek hanka-puntetan zutitu eta txanoa ipiniz.

—Baina eskularruak behar ditu!

—Nik ez dut eskularrurik baina txikle bat bai —esan zuen Leirek, eta ahoan sartu zion.

Hirurak begira gelditu ziren, murtikatzen noiz hasiko zen zain.

Baina panpina ez zen mugitu.

—Ez zaio gustatzen! —esan zuen Jonek.

Iluntzen hasi zen eta Aitorrek esan zuen:
-Iluntzen ari da goazen etxera bihar etorriko gara.
Biharamunean leku berera itzuli ziren, panpina urtuta zegoen eta lurrean hauxe idatzita aurkitu zuten paper batean "Mila esker txikle eta txanoagaitik, gauean epel-epel egon naiz horregaitik urtu egin naiz. Datorren neguan itzuliko naiz!"
Handik aurrera urtero urtero itxaroten dute negua noiz helduko haien laguna berriz ikusteko.





## Abodi del Val Erezuma

"Sukaldatzea asko gustatzen zait"

# «Lugi hartza»

## Lugi Hartza

Neguko egun batean bazen Lugi izeneko hartz bat.

Lugik ile asko zeukan eta begi urdinak. Zoo batean bizi zen. Zooan denda bat zeukan eta pertsona pila bat joaten ziren bisitatzera. Zooan animalia asko zeuden. Lugi bakarrik sentitzen zen ez zeukalako lagunik. Bat-batean hegazkin bat ikusi zuen eta urduritzen hasi zen. Hegazkina beregana hurbiltzen hasi zen kutxa handi batekin eta kutxa handia Lugiregana bota zuen. Orduan, Lugi harrapatu zuten. Amerikatara joa-teko kaxa zen. (Desbideratu egin zen hegazkina). Han hartz asko ikusi zituen. Eta lotsaren-lotsaz kobazulo



batera joan zen. Egunak joan egunak etorri, hartz asko hurbildu zitzaizkion eta kanpora bota zuten. Kanpoan beste kobazulo bat topatzen hasi zen eta azkenean kobazulo bat topatu zuen. Kobazulo barruan hartz txiki bat ikusi zuen eta, jolastu eta jolastu, lagunak egin ziren. Hartza Popi deitzen zen. Popik bere lagunei deitu zien eta bere amari ere.

Eta handik aurrera basoko guztiak lagun egin ziren.









Nora Uriarte Aranguena

"Ipuinak irakurtzea, lagunekin jolastea, eskulanak egitea eta hondartzara joatea dira nire zaletasunak"

# «Harri magikoa»

## HARRI MAGIKOA

Bazen behin ume bat Ana deitzen zena.
Anak oso ondo marrazten zuen eta egun batean marrazten zegoenean harri bat bota zioten kanpotik eta hau esan zuen:
–Harri magikoa!
–Nire amari esango diot!
Amarengana joan zen esaten:
– Ama, ama!
– Harri magiko bat topatu dut!
–Eta zer magia egiten du?
–Ez dakit.
– Baina probatuko dut.



Sukaldera joan zen eta gero agindu zion
harriari:
-Harri magikoa, prestatu janaria!
Eta ez zuen janaria egiten. Berriro agindu
zion eta ezer ez! Hurrengo goizean joan zen
andereinoarengana eta esan zion
-Andereino, gauza oso interesgarria daukat erakusteko!
-Azken saioan erakutsiko diguzu, bale?
Azken saioa heldu zen eta harria erakutsi zuen:
- Begira, harri magiko bat!-
Esan zuen, eta orduan bere lagun guztiak hasi
ziren barrezka.
-Kar, Kar, Kar!
Ostean etxera joan zen. Eta esan, esan eta esanaren-
esanez harriari magia egiteko, azkenean kasu egin zion.
Handik gutxira harriak janaria prestatu zuen,
etxea garbitu, logelak txukundu, Anari jantzi
polit bat josi zion... Orduan Ane oso pozik
jarri zen. Eta hau hala bazan eta ez bazan
sar dadila Kalabazan eta atera dadila Arratzuko plazan.

Nora



Ander Moreno Aurtenetxea
"Igeri egitea eta lagunekin jolastea gustatzen zait"

# «Zirku ikusgarria»

## Zirku ikusgarria

Bazen behin, desagertzeko zorian zegoen zirku bat, Gernika-Lumoko zirkua zen. Gero eta jende gutxiago zihoan ikuskizunaz gozatzen.

Zirkua polit-polita eta harrigarria zen. Bertako langileek, pailazoek, trapezistek, magoek... familia bat osatzen zuten. Guztira 20 pertsona ziren "roulot" eta karabanatan bizi zirenak. Ez zuten diru askorik, baina elkarrekin ondo konpontzen ziren eta zoriontsuak ziren.

Egun batean, oporretan zegoen Italia zirkuko zuzendaria, enteratu egin zen desagertzeko zorian zegoela. Larunbat arratsaldean, 17:00-etako ekitaldira joan zen bere familiarekin. Pila bat gustatu zitzaionez, Gernika-Lumoko zuzendariarengana hurbildu eta zera esan zion Frantzesak:

-Kaixo! Proposamen bat egitea gustatuko litzaidake.

-Bai. Entzuteko prest nago! Esan, esan! -erantzun zion Patrickek.

-Beno, proposamen batzuk hobeto esanda:

Bat, zirkua erostea; bi, bazkideak izatea eta hiru, Italiara etortzea.

- Besteekin hitz egingo dut eta erantzuna bihar bertan izango duzu - erantzun zion irribarretsu.

Iluntzean, batzartu eta luzaro hitz egin ondoren, bazkideak izatea erabaki zuten.

- Zer albiste daukazu? - galdetu zion Frantzezkok.

- Albiste onak, bazkideak izatea erabaki dugu eta!

Bostekoa eman eta elkar besarkatu zuten. Horrela gernikarrek Italiara joatea erabaki zuten.

Berehala, prestakuntzak hasi ziren eta lau egun barru Italiarantz abiatu ziren. Abesten, barrezka, kontu kontari ... zihoazen, baina, zoritxarrez bidai horretan, gaiztakeriaren bat egiteko maltzur batzuk zeuden. Bat-batean, itsasoaren gainean zeudenean, gernikar pailazo bi hartu, atea zabaldu eta plausta! uretara bota zituzten. Hura bai zela istanbila hura!

Pailazoak pertsonai garrantzitsuak izateaz gain, aurkezle paregabeak ziren eta plan bat asmatu behar zuten berreskuratzeko. Maltzurrak despistatuta egon ziren momentuan, 180 Kg-ko tigre domatzailea, haien gainera bota zen. Aplastatuta geratu zirenez, soka sendo bateken eserleku batera lotu zituzten. Italiako aireportura heldu zirenean, poliziei jakinarazi zieten. Berehala, itsasoko sorosleekin pailazo biak aurkitzen hasi ziren.

Pako eta Piku pailazoak uharte batera heldu ziren. Bertan, altzora

babesten zuen pirata estralurtarra bizi zen. Hirurak lagun egin ziren eta gertatutakoa kontatzerakoan, laguntzea erabaki zuen.

– Boterea emango dizuet idunekoa berezi baten truke – esan zuen piratak.

– Non lortu dezakegu idunekoa? – galdetu zuen Pikuk.

– Non izango da ba! – Italiako museoan!

– Ondo da, zein da botere hori? – galdetu zuen Pakok.

Bat-batean, txoriak bezala hegan hasi ziren. Zirkura heldu zirenean, guztiak poz-pozik zeuden dena prest zegoelako egun handirako.

– Kaixo lagunok, ongi etorri gure zirkura! – esan zuen zuzendariak.

Pailazoen ekintzekin, publikoa barrez lehertzen zegoenean, hegan dantzatzen hasi ziren. Publikoa aho zabalik geratu zen. Hura bai zela ikuskizuna!

Mundu guztian zabaldu zen notizia eta Gernikako zirkua ospetsua egin zen. Ospea ezezik dirutza ere, lortu zuen eta. Horrela, mundu guztitik zehar bidaiatu zuen ikuskizunak egiten.





Unax Uribe Olasolo
eta Iker Lopez
"Euskaraz jolastea eta margoztea gustoko dugu"

# «Jon mendizalea»

JON MENDIZALEA



Egun batean, Jon
izeneko mutil bat ohetik
altxatu zen eta bere
aitari mendira txangoa
eskatu zion. Eta
bere aitak esan
zion: - Bale, nahi duzun
moduan, baina betiko
moduan nire alboan!
-Bale, esan zion Jonek.

Mendirako bidea artu zuten eta [illegible] zeuden tipa-tipa bide erdian bi txakur agertu ziren arte baina zuenetan, basurdeak [illegible] nahi zuten eta [illegible] jarraitu zuten. Bat batean, Jonek zuhaitz batean urtxintxa bat [illegible] zuen eta

bere aitari esan zion:

-Aita! Aita! Begira, urtxintxa bat! Zuhaitzean

- esan zuen Jonek -.



Gero urtxintxa bere etxera joan zen eta Jonek galdetu zuen:-

-Aita joatera?

Eta aitak erantzun zuen:

-Et

-Ez! baina

pentsatzen dut baietz.

gero basorantz joan zen, gero eta barrurago eta gehiago eta gehiago...

Baso erdian Jonek etxe bat eta kanpoan txakur bat ikusi zituen eta zaunka hasi zen

Uau! Uau! Uau.

Jonek eta bere aitak bidea jarraitu zuten.

Gero basurde kume bat ikusi zuten.

Jon basurdeari begira geratu zen

eta bere aita galdu zuen.
Jon bere bila aritu zen eta
azkenean ideia bat eduki zuen
eta ideia hauxe zen: Jon
horrela etxea topatu zuen eta
orduan etxe atzera joan zen eta
txakurra loka zegoelako
Jonek bere etxeko bidea topatu
zuen.






L.H. 4. maila

Garazi Fernández Zuloaga

"Musika gustatzen jat"

# «Aneren ametsa»

## Aneren ametsa

Udaberriko egun sargori batean, arratsaldeko azken orduan, inguruneko klase tokatzen zitzaion Aneri. Mantenugaiak, dieta osasungarria, karbohidratoak, bitaminak, mineralak... Uf a zer nolako logurea! Bitaminen eta mineralen ostean Ane lo geratu zen.

"Asante sana, squash banana, we we nugu mi mi apana... ♫" Musika entzuten esnatu zen Ane. Gelaren erdian Ane beldurtuta zegoen. "Asante sana, squash banana... ♫" Anek ezin izan zuen gehiago beldurrarekin eta gelaz-gela joan zen. Gelak utzik zeuden, gero eta altuago entzuten zen. Ematen zuen jantokitik zetorrela. Ane jantokira hurbildu zen, atea kontu handiz ireki eta, katu bat aurkitu zuen. Aneri begira geratu zen, beltz-beltza zen eta begi berdeak zituen. Katuak ez zuen begirada Aneren aurpegitik kentzen. Berriro entzun zuen

abestia: "Asante sana, squash banana... ♫"
Eta katuak salto egin eta lehiotik irten zen.
Anek, sukaldeko mogdalena guztiak amaitu zituenean ur apur bat edan eta gero berriro entzun zuen. "Asante sana, squash banana... ♫"

Ordenagailu gelara joan zen, bertan hontz bat aurkitu zuen eta hau esan zion: "Ordenagailuan, ordenagailuan!!" eta ikastola hartan mamu bat zegoela irakurri zuen You Tuben. "San Fideleko mamua"
Orain dela urte asko mamu bat zegoen...
Anek berriro entzun zuen abestia. "Asante sana... ♫"
Musika gelan begiratzerakoan hain altu entzuten zen...

Ane, esnatu egin zen. Dena amets bat zen!
Inguruneko elikagaien piramidea ikasten eta Errege lehoiaren istorioa ikusten ari zela lo geratu zen bere ohean. Horregatik esaten dugu, ez direla egin behar bi gauza aldi berean.

Hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila San Fideleko plazan.





Ekain Albizu Otazua

"Futbola eta esku-pilota oso gustuko ditut. Baina batez ere lagunekin jolastea"

# «Bronkaren beldurrez»

## BRONKAREN BELDURREZ

Bazen behin herri txiki batean ume talde bat. Ume talde horretan lau lagun dira...
Jon; beltzarana, 12 urtekoa, bihurria eta indartsua.
Oier; altua, bizkorra, 10 urtekoa eta ausarta.
Unai; 11 urtekoa, futbolzalea eta igeriketan oso ona.
Oinatz; txikia, 9 urtekoa, alaia, kirolzalea eta buruargia.

Uda heldu da eta oporrak hartu dituzte. Orain egunak luzeak eta beroak dira, oso beroak. Hori dela eta, ideia bat bururatu zaie gure lagunei. Izan ere, Oinatzi bururatu zaio ideia hau; herrian duten errekara eguna pasatzera joatea. Poz-pozik hartu dute ideia eta irteera prestatzen hasi dira: zelan joan, zer eraman, noiz joan... Azkenean, hurrengo eguneko goizeko 10:00etan joateko geratu dira.

Hurrengo eguna heldu da eta Oinatz oso pozik dago. Halako bateán amak esan dio:
-Zu, Oinatz erosketak egitera joan behar dut eta arreba zaindu behar duzu!

Orduan, Oinatzek pentsatzen du:
- Joe, nik lagunekin joan nahi dut eta orain nire 5 urteko arreba txikia zaindu behar dut.

Errekara joan dira eta Jon, Oier eta Unai errekan daude jolasten poz-pozik. Bitartean Oinatz bere arreba txikiarekin dago, bere lagunek zer egiten duten ikusten. Handik denbora batera Oinatz aspertuta dago eta bere arreba den Juneri esan dio:
- June egon hemen geldi-geldi, ni nire lagunekin jolasten noa. Lasai egon, laster itzuliko naiz eta!

Oinatz lagunekin joan da jolasten. Arreba txikia 5 minututan geldi egon da, baina 10 minutu pasatu eta gero, garrasiak entzun dituzte lau lagunek. Atzera begiratu eta June uretan dago, korronteak presarantz darama! Oier eta Unai uretara salto egin duten bitartean, Jon eta Oinatz zuhaitzetako adar batzuekin June salbatzen saiatu dira. Junek, Jonek zeukan adarrari heldu eta uretatik ateratzea lortu du.

June pixka bat lasaitu denean, Oinatz eta Junen etxera joan dira. Oinatz ere negarrez hasi da, amaren bronkaren beldurrez! Etxera heldu direnean Oinatzek dena kontatu du. Baina amak ez dio bronkarik bota bakarrik hau esan dio:
-Errekan egon zarete eta ez didazue arraintxorik ekarri?

Orduan Oinatz lasaitu egin da eta konturatu da zenbat maite duen bere amak.
Egia ala gezurra, ez izan beldurra!!!





Iraide Plaza Xxxxxxxx
"Lagunekin jolastea dut gustuko"

# «Lagun minak»

## LAGUN MINAK

Orain dela urte asko izurde bat eta marrazo bat Bermeoko portuan bizi ziren eta lagun minak ziren. Marrazoa Klara deitzen zen, handia zen eta larruazala urdin-iluna zuen. Nahiz eta jendeari beldurra eman, adiskidetsua eta bihotz onekoa zen. Berak zeukan lagun mina, izurdea, oso desberdina zen, txikia, larruazal urdin argikoa eta polita zen. Begiak biribilak eta distiratsuak zituen eta oso ona eta lasaia zen. Bita zuen izena.

Oso pozik bizi ziren Bermeoko uretan Klara eta Bita baina egun batean aquarium bat eraikin zuten itsasoaren ertzean, eta arrantzaleek gure Klara eta Bita harrapatu eta han sartu zituzten.

Hasieran marrazoa eta izurdea oso triste zeuden ez zutelako ez beste lagunik ezta leku nahikorik igeri egiteko.

Behin, igerian zihoazela haien begien aurrean arrain txikitxo bat topatu zuten eta berarekin hizketan hasi ziren:

-Hemen aquariumean ihes egiteko aukera bat dago -esan zuen arrainak.

- Aquariumaren erdian kristal handi bat dago eta beste aldean berriz, itsasoa. Nik ez daukat indarrik eta ezin dut apurtu -jarraitu zuen arrainak.

Klarak eta Bitak lagun berri bat zeukaten orain, Laura arraina, eta hiruren artean plan bat pentsatu zuten ihes egiteko.

Marrazoak indar handia zuenez kristala apurtu zuen. Ordutik aurrera, aukera zuten itsasora irteteko nahi zuten bakoitzean, baina han geldiru ziren beraien lagunekin, asko egin baitzituzten. Orain aske direnez, noizean behin hirurak batera irteten ziren itsasora.





Anne Lamikiz Artetxe

"Kirol guztien artean igeriketa da niretzat gustukoena"

# «Olentzero badator»

Olentzero badator

Bazén behin herriaren kanpoaldean bizi zen familia bat. Ama oso gaixorik zegoen, aita beti lanean eta Tromin izeneko umeak amaren etxeko lana egunero egin behar zuen. Hori dela eta, Gabonak heldu zirenean ez zuen astirik izan Olentzerori gutuna idazteko.

Egun batean eskolan ume guztiek esan zioten Olentzerok ez ziola opariirik ekarriko ez ziolako gutunik bidali. Abenduaren 24ko gauean Olentzero opariak banatzen zegoenean, opari guztien pisuaren eraginez astoari hanka bat apurtu zitzaion; bere gainean zeramatzan opari guztiak lurrera eroriz. Olentzero, orduan, zer egin ez zekiela oso triste jarri zen pentsatuz ez zuela astirik izango ume guztiei opariak garaiz iristeko:

Arratsalde hartan Tromin mendira joan zen Olentzerori gutuna emateko asmoz; egin zuelako lan hartu opariirik ez zuela jasoko behin eta

berriro pentsatuz. Halako batean, mendirantz zihoala, Olentzero bere astoarekin aurkitu zuen. Astoak hanka bat apurtuta zeukala ohartu zen, baita opari guztiak lurrean botata zeudela ere.

Trominek izugarrizko poza hartu zuen Olentzero bertan ikustean. Segidan Olentzerok galdetu egin zion Tromini zergatik zegoen bertan eta berak erantzun zion berari, berarengana joan zela gutuna zuzenean emateko, oso berandu baizen korreo postalez bidaltzeko. Ezinezkoa suertatu zitzaion arinago idaztea bere ama gaixorik zegoelako eta horrexegatik berak egin behar zuen etxeko lana.

Trominek zera erabaki zuen opari guztiak lurrean botata ikusi zituenean: Olentzerori opariak etxez etxe banatzen laguntzea berak bakarrik ezin zuelako lan hori egin. Orduan ziztu bizian herrirantz abiatu zen Tromin herriko beste ume guztiei laguntza eske. Handik lasterrera han agertu ziren ume guztiak pozarren. pozez Olentzeroren ondoan.

Olentzerok eskatutako ume bakoitzari bere oparia banandu zion.

Trominek ez zuen jostailurik nahi: ama osatzea baino. Baina, zoritzarrez, Olentzerok ezin izan zuen nahi hori bete. Tromin sekulako anibel izan zen.



Gau hori berezia eta magiko izaten denez, mirari harrigarri bat gertatu zen. Hurrengo goizean Tromim eta aita ohetik jaiki zirenean; ama poz pozik ikusi zuten, irribarre polita aurpegian zuela ez beste egunetan bezala. Ama sendatuta zegoen! Hura zen Gabonetako oparirik onena Tromimentzat!

Eta Haiek ondo bizi izan baziren ere, gu ere ondo bizi gaitezen.

# AMAIERA



Gorka Aldana Aldekoa

"Lasterketetan parte hartzea eta ipuinak idaztea gustuko dut"

# «Berrogeita hamar zauri baino gehiago»

"Berrogeita hamar zauri baino gehiago"

Ni Zur naiz, Basterretxea familiako txakur maitea. Border Collie arrazakoa. Ardiak zaintzen ditut nire baserrian. Hemen asko maite naute eta nik etxekoak ere. Hau nire bigarren etxea da, lehenengotik ez ditut oroitzapen onak gordetzen eta oso pozik sentitzen naiz bigarren aukera izan dudalako. Orain kontatuko dizuet gertatu zena:

Jaio berria nintzenean animalia denda batera eraman ninduten. Egun batean, familia bat sartu zen. Kaiola guztietatik pasatu ziren, bertan geundenoi kritikatuz, batez ere umeak. Honelako gauzak entzuten ziren:

- Ez, hau ez, honek begiak, lar handiak ditu.
- Hau ere ez, ez zait kolorea gustatzen.
- Honek ilea luzegia du...

Hainbat denbora egon ziren, dendako txoko guztiak aztertzen, ni aukeratu nindutenerarte. Nire kaiolako bazterttxoan eserita nengoen, nire begi goibelekin, hau

entzun zuenean:
-Hau billaina da! Eraman dezakegu?
Pozik jarri nintzen etxe berri bat nuelako, eta hasieran, lehenengoko bi urteak, billainak izan ziren etxe hartan: umeekin jolastu, familiarekin oporretan joan... etab. baina gero... gauzak aldatzen hasi ziren, nitaz ahaztu ziren! Ez zuten nirekin jolastu nahi, ez zidaten kalera ateratzen, eta... neaki, ni arreta deitu nahian zaunka hasten nintzen. Horrek ondorio larriak ekarri zizkidan. Kalanbreak ematen zizkidan idunekoa jarri zidaten eta edozein zarata egiten nuen bakoitzean deskarga jasotzen nuen. Konturatu nintzen, kapritxo bat nintzela. Egun batean bidaia bat egitera joan ziren eta bost egun geratu nintzen bakarrik janari eta urik gabe. Etxe hartan gertatzen ziren istripu guztien errudun bihurtu nintzen. Ume txikienak, baten loreontzi bat apurtu zuen eta niri bota zidan errua, orduan aitak, kalanbrea maximora igo zuen, egia esan, aitak ez zuen maskotarik nahi, eta inoiz ez zen izan maitekorra nirekin. Sentitu nuen mina, itzela zen! Beste batean, autoaren atzeko aldera lotu eta korrika joan behar nintzen, erori eta arrastaka eraman zidaten, soka apurtu zenerarte. Orduan jaurtigailu batetik balitz bezala irten nintzen, nire hezurtxoekin kuneta batean jausi nintzenerarte.

Eskerrak hor utzi nindutela, bihotz oneko gizon batek aurkitu ninduenerarte!

Bere kotxean sartu eta eraikuntza handi eta moderno batera eraman ninduen. Animaliak zauden leku gustietatik baita medikuak ere. Gela batera eraman eta nire gorputz mindua aztertzen hasi bezain laister, hau esan zuen batek:
-Berrogeita hamar zauri baino gehiago ditu gaixoak!!!

Han pasatu nuen nire bizitzako beste alditxo bat, gaur dudan familia agertu zenerarte.
Hasieran beldur nintzen, baina zorionez laster konturatu nintzen, bihotz onekoak zirela.
Baserrian, beste txakurrarekin jolasten hasi eta nire etxean nengoela sentitu nuen.
Orain dela gutxi txakurkumeak jaio dira, ea zoriontsuak diren!!!

Eta zuek, ondo tratatzen dituzue animaliak?





L.H. 5. maila

## Beñat Zobaran Diez

"Kirol egitea gustatzen zait"

# «Everest»

## EVEREST



Bazen behin, herri txiki batean mendietik ibilten ziren talde bat. Hasieran, taldearekin Euskal Herriko mendiak igotzen zituzten, den-denak, banaka banaka. Gero Pirineoetara eta amaitu zituztenean Pirineoetakoak Alpeetara joan ziren, gero eta handiago-ak igoteko asmoz. Azkenean bateri bururatu zitzaion Himalaiako Serrara joatea, Everestera, hain zuzen. Denak animatu ziren. Orduan Everestera joateko baimen berezi bat lortu behar zuten: Nepaleko gobernuari eskatu behar zaiona.

Hasieran bota zuten karta-bat Everestera igo nahi zutela baina bi hilabete beranduago etorri zitzaien beste bat haiei, eta hau jartzen zuen:

-"Ez!!! Ezin da igon inor Everestera eta Himalaiako mendi bakar batera ere ez!!! Orain dela hilabete bat 44 inbestigatzaile ibili ziren mendietatik ikertzen eta berehala

PLAST!!! horrenbeste pisurekin dena jausi zen, elurra, harriak... eta 44 ikertariak hil egin ziren.

Denak geratu ziren izututa, baina hurrengo urtean, berriro ere bota zuten karta bat ea dena konponduta zegoen jakiteko eta baietz erantzun zien baina ez ziela utziko, oraindik arriskutsua zelako; baina gure lagun taldeak konbentzitu zuen Nepaleko gobernua hau esanez: "Euren inguruko mendi guztiak igota zituztela eta goren igon zutena Alpeetako Mont Blank, 4810 m-koa izan zela."

Hilabete bat geroago Nepaletik erantzuna etorri zen:

"Baiezkoa zen!"

Denek egin zuten horrelako "Iuju" bat. Gero jarraitu zuten irakurtzen eta hauxe zioen:



"Baina baldintza batekin, gure laguntzaile batekin igo behar duzue. Bertoko sherpa batekin hain zuzen ere."

Hori berdin zitzaien eta han joan ziren munduko mendirik garaiena igotzera. Dena prestatu eta harantza abiatu ziren.

Lehen 1000mak igoten hasi zirenean nekatuta zeuden eta hotzarekin. Baina aurrera jarraitu zuten. Laguntzailea gidari bat bezala zen eta aurretik joaten zen. 3.000 m-tara laguntzaileak estropezu egin zuen eta amildegitik behera jausi zen. Denak jarraitu zuten gorantz baina laister galdu egin ziren; baina gazteenari bururatu zitzaion




elurretan S.O.S jartzea eta horrela elikoptero batek beharbada ikusiko zituen eta beraiek salbatzera etorri.

Eta hala izan zen, ea izoztuta aurkitu zituzten.

Etxera bueltatu eta ez ziren inoiz ere gehiago Himalaiara hurbildu bertan pasatutako beldurragatik.

L.H. 5. maila



Iraia Aranbarri Musatadi

"Igeri egitea gustatzen zait eta irakurtzea ere bai"

# «Filipinaseko uholdea»

## FILIPINASEKO UHOLDEA

Bazen-behin Enara izeneko neskato bat, Enarak 12 urte zituen, ile horia zuen eta begi beltzak Neskatoa oso zintzoa zen eta lagun asko zituen. Bere zaletasuna kirola egitea zen. Baia familian ez zen bakarra, neba bat ere bazuen Ander izenekoa baina jaio berria zen. Enara amamarekin, aititerekin, amarekin eta Aitarekin bizi zen. Familia kostalde ondoko herri batean bizi ziren. Filipinaseko uhartean, etxolatxoan bizi ziren.



Baina egun batean gauza harrigarri eta beldurgarri bat gertatu zen. Orain Enarak kontatuko dizue istorio hau.

Kaixo, ni Enara naiz kontatu dizue Iraiak ezta?

Beno hau da nire istorioa.



Egun zoragarri eta berotsu batean Filipinaseko hondartzan geuden, familia guztia. Gainera jende mordoa zegoen egun pasa. Han zegoen familia bat oso aberatsa zen eta oso arroa ere. Familia horrek lau haur zituen, handiena 14 urtekoa eta txikiena 2 urtekoa zen. Guk Filipinasen familia baloitzari izena jartzen diogu, eta beraiek familia aberatsa eta arroa "Warson" familia zen, beraiek ere hondartzan zeuden. Goizean eguraldi zoragarria egiten zuen



Baina eguerdi bueltan, laino beltz-beltzak irten ziren, eta denok gure autoa hartu eta kostaldetik etxolara joan ginen. Denak "Warson" gamilia izan ezik.



Bost minutu igaro ondoren izugarrizko uholdea azaldu zen eta "Warson" gamilia harrapatu zuen.



Uholdeak kostalde guztia hautsi zuen eta "Warson" gamilia ere, bueno bat izan ezik txikiena bi urtekok konortea galdu zuen. Gurutze gorrikoak ingormatu zigun, eta ba ahal dakizue zertan egon zen?

Amelsetan egon zen, eta hau amestu zuen:

Hawai uhartean zegoela lagunekin eta hainbat ekintza egin zituztela. Surf wind surf, bela hainbat! Eta gainera bost izarreko hotel batean zegoela spa batean eta gauean diskotekara! Ba ondo jarri zenean ametsa amaitu egin zen.

Gero Gurutze gorrikoek emakume zintzo batengana eraman zuten. Istorio triste eta beldurgarri hau emakumeak kontatu zigun eta orain dela lau urte gertatu zen.

Haurra orain poz-pozik bizi da!



Egilea: Iraia

L.H. 5. maila



Iera Larrinaga Vergel

"Kirol zalea naiz, saskibaloira jolastea gustatzen zait"

# «Denboran zehar»

## DENBORAN ZEHAR

Baziren behin 10 urteko biki xelebre bi, Saioa eta Alain. Nahiko bihurriak eta induriak ziren, eskolan beti zeuden andereño eta maisuei gauzak galdetzen. Euren aita eta ama zientzialariak ziren eta denboran zehar bidaiatzeko makina asmatu zuten.

Biki bihurriek ikusmin handia zutenez, ibilgailu magikoan sartu ziren gurasoei ezer esan gabe. Saioa zenbakiak irudikatzeko arkatz berri batekin zebiltzala Alainek botoi gorri bati eman zion eta bat-batean makina martxan jarri zen.

Bost minutu ondoren atea ireki zen eta han zeuden, Ereñozarreko San Miguel mendian Santimamiñeko Kobazulo aurrean. Makinak animalien larruzko jantziak eskeini zizkien eta bikiek ez zuten ezer ulertzen. Baina hainbat gizon, emakume eta haurrak horrela jantzita zeudela ikusTean historiaurreraino bidaiatu zutela Konturatu ziren. Aintzinako familia horek irudi zoragarriak margotzen zituen Kobazulo hormetan.

Bikiak liruraluta zeuden han gertatzen zenarekin baina inguru hontan sekulako hotza zegoen eta bizitza oso gogora zela konturatu ziren. Makinara sartu eta Saioak 2500 urte K.a. irudikatu bezain laster ibilgailua beste bidaia bat egin zuen. Atea ireki eta hainbat gizon ikusi zituzten sekulako harriak nonbaitera eramaten. Denbora makina gainean igo eta milaka pertsona piramide erraldoi bat egiten zeudela ikusi zuten.

Euren gurasoekin Egiptora bidaia eginda zutenez, Keops-eko piramidearen aurrean zeudela konturatu ziren.

Zoragarria zen bertan. Baina hango beroa eta lan egiteko baldintzak oso-oso gogorrak ziren eta euren ibilgailura bueltatu ziren.




Oraingoan Alainek 1492. urtea idatzi zuen eta Saioak eman zion botoi gorriari. Segundu batean Cristobal Colonekin Amerikako irla batera heltzen ari ziren. Lekua zoragarria zen, naturaz beterik zegoen eta hango jendea pozik bizi zen. Baina bikiek aurkikuntzaren hurrengo urteetan zer gertatu zen ondo zekiten, andereñoak gelan azaldu zuelako.

Sufrimendu asko ikusiko zutela zekitenez, makinara igo ziren eta gaur egunera bueltatzea erabaki zuten. Baina Alain zenbakiz erratu egin zen eta 2115 urtea jarri zuen. Gernikan zeuden, itsasoko urez inguraturik eta bero handiarekin. Ez zen ba hori izango maisuak azaldu zien berotze globalaren ondorioa?

Orain bai, 2015ean zeuden eta etxera heldu ziren. Gurasoak oso pozik zeuden haiek ikusterakoan, baina sustoa eta gero itzelezko errieta egin zieten. Bere gelan zegoenean hurrengo egunean historiako azterketa konturatu zen Saioa, baina oso berandu zen ikasten hasteko.

Eskolara heldu bezain laster azterketa hasi zen eta bidaian ikusitako guztia idatzi behar zutela konturatu ziren. Ze ondo! -esan zuten. Azterketa bikain egingo zuten. Baina azkeneko galdera hau zen:
- Zuk historiako zein garai nahiko duzu bizitzeko?
Biek erantzun zuten berdin:
Gure garaia gustokoago dugu, lehen baino hobeto bizi garelako. Baina horrela jarraitu nahi badugu gure mundua hobeto zaindu beharko dugu.



L.H. 6. maila

Daniel Mendoza Dorado

"Lagunekin jolastea eta irakurtzea dut gustuko"

# «Martinen abentura»

## Martinen abentura.

Martinek hamaika urte zituen. Ile beltza zuen eta ez zen oso altua. Herrian oso ezaguna zen, mutil oso-oso ona zelako. Herriko nagusiei erosketak etxera eramaten laguntzen zien eta haur txikiei bidea gurutzatzen laguntzen zien.

Egun batean, beste herri batera joan behar izan zuen bizitzera, bere aitak lana aurkitu zuelako. Martini ez zitzaion ideia askorik gustatu, bere herriko lagun eta aitona-amona guztiak galtzeko beldur zelako.

Martin, bere etxe berrira heldu zenean etxea arakatzen hasi zen, gauza bakoitza non zegoen jakiteko. Oso etxe polita eta handia iruditu zitzaion.

Baina, Martin oso aspertuta zegoenez, beheko solairura joan zen. Horma batean zulo handi bat zegoela konturatu zen eta bertara hurbildu zen eta ... Ate bat ireki zen!.

Sotoa zen. Bertan erdian, mahai bat zegoen. Mahaiaren gainean liburu handi bat zegoen.

Martinek liburua ireki zuen eta liburutik argi dirdiratsu bat irten zen. Martinek une batez begiak itxi zituen. Ireki zituenean albo-etara begiratu eta ... horra! Non nago? - galdetu zuen. Beste leku batean zegoela konturatu zen.

Zerura begiratu eta iratxo bat ikusi zuen bertan, dragoi baten gainean. Dragoiari begira zegoela beste iratxo bat pasatu zen bere albotik eta honela galdetu zion:
- Ba al dakizu non gauden?
- Noski! Fantasiako hirian gaude, ametsak egi bihurtzen diren lekuan. - Erantzun zion Martinek.

Iratxoak, Martini, bere etxera gonbidatu zion. Martin iratxoaren etxera heldu eta hiru dragoi ikusi zituen, bat oso handia eta beste biak, txikiak.



Dragoi bat, oso argia zen eta bestea, aldiz, ez hain azkarra. Asko ahalegindu arren ere, ezin zuen sua ahotik bota. Martinek, zelan edo halan, lagundu nahi zion dragoi txikienari. Hainbeste ahalegin egin ondoren, lortu zuen dragoiaren ametsa betetzea.

Martinek, ordutik aurrera, dragoitxoari Sharp izena deitzen zion. Lehenago, Sharpek, nota beltzak zituen eta argala zen. Geroago, izugarrizko dragoia bihurtu zen.

Sharp eta Martin elkarrekin hegan ibiltzen ziren hodeien artean baina momentu batean, argi distiratsu bat ikusi zuen zeruan. Argi horrek, bere etxera bueltatzeko aukera ematen zion. Martinek, ez zekien oso argi zer erabaki hartu. Azkenean, bere aitaren ondora joatea erabaki zuen, baina bazekien sotoan zain zuela liburu magikoa.





L.H. 6. maila

Maule Donoso Bilbao

"Animaliak zaintzea gustatzen zait"

# «Domina bat»

DOMINA BAT

Gernikako arbolaren ondoan
egun eguzkitsu batean...
- Au! au! au! Grr... Au! Kaixo Mari Mezulari!!
Spot Gernikako arbolako txakur zaindaria zen.
Zuri-Beltza eta Kolare beltza eta berdea zuen.
- Kaixo Spot! Zu betiko moduan
saltoka eta zaunkaka!
- Horixe da nire lana!
"Tok, tok!" Marik atea jo zuen.
- Bada norbait etxean? - esan zuen - Kaixo?!
- Kaixo Mari! - esan zuen Gurik - Ba al duzu gutunik?
- Bai, "Gutun Urgentea" daukat!
- Ongi. Ea ba... Gurik Gutuna irakurri zuen:



"Kaixo Guri, M.E.F gara, Mexikoko Ekipo Fiesteroa eta zu
eta Spot misio batera gonbidatuta zaudete.
Gaur ostirala da, eta, biharamunean Mexikora zatozte.

Adeitasunez:
Guisama Mariana zure Mexikoko amona

URGENTE

MEXICO, D. F.



Gusi gusanoa abioira iritsi zenean azafatak esan zion:



- Gusi Gusanoa al zara?- Galdetu zuen - Ez da hau zure abioia!
- Zein da ba?- Galdetu zuen
- Horixe da - esan zuen - abioi horixe!

Abioi bikia, 3 pertsonakoa eta urrezko hegoekin zen. Zortzi ordu eta gero, Mexikora iritsi ziren eta bere anaia, Gusano Mariano hantxe zegoen:

Berba egin eta gero, Gusiri plan guztia kontatu zion:

- Orain, hiru ordu egongo zara lurpean eta lurrazpiko esmeralda aurkitu behar duzu! - jarraitu zuen - biharamunean joango zara lurraren sustraitara.

Sartu zenean, Spot berarekin joan zen eta kondermadak esan zizkioten, Baina aurkitu zutenean gauza txarra gertatu zen.

Kanarioa galdu zen!!!

- Nola irtengo gara?!?!



Gusik ez zekien zer egin.
Spotek ez zekien zer egin baina esan zuen:
-Badakit! Lurra Aterako dut arkuasgerarazarte.
Lurra atera zutenean Kontaktatu ziren
-Gusi!?. Eskabadoretik aterako zaitut!
Atera zutenean esperalda Museora eraman zuten eta pozik bizi izan ziren hurrengo abentu-razarte.

Hiru aste geroago Domina bat eritzi zien urrezkoa, eskeralda ateratzea gatik.
Gusik eta spotek ekitza ona egin zuten.
Ez al duzue uste?





Alex Barrena Garay
"Kirola gustatzen zait"

# «Harrizko hiria»

## Harrizko hiria

Egun hartan esnatu nintzenean ez neukan eskolara joateko gogorik, baina egutegia begiratu nuen eta:
-Gaur da eguna, ikastolarekin txangoan goaz!
Zutitu bizian jantzi eta segidan etxetik irten nintzen. Baina ikastola aurrean nengoenean konturatu nintzen:
-Motxila ahaztu zait!
Korrika atzera bueltatu eta motxila prestatu nuen. Ikastolara bueltatu eta bertan zeuden denak. Andereñoak ni heltzen ikusi eta martxan jarri ginen. Ez ziren 10 minutu ere pasatu eta andereñoari galdetu nion:
-Eta norantz goaz ba?
-Zer? Jakingo bazenekiela zenuke!



-Bai baina ahaztu egin zait.
-
-Beno esango dizut. Harrizko hirira goaz.
-Zein? Hiri hori inork ere ez dakiena nork, zelan edo zergatik sortu zen?
-Bai, horixe bera.
-Zer! Hiri hori hemendik 3 ordura badago.
-Abisatu nuen urruntxo dagoela!
-Bai. (beldurtuta).
Andereñoarekin elkarrizketa hori eduki eta gero, Julenen gana hurbildu nintzen berarekin egoteko ibilaldi guztian zehar. 5 minutu igarota galdetu zidan:

-Ez dauzkazue kuriositaterik hiri horri buruz gehiago jakiteko?
-Egia esan, bai.
-Orduan perfektu! Andereñoak esan dit: jan ostean libre geratuko garela. Nahi baduzue han geratu ahal gara nahi beste. Irrikaz nago, esaten dute leku horretan zoologikoa bat dagoela. Heldu ginenean denok harrituta geratu ginen. Esaten zutena egia zen: hiri hori beste hirien modukoa zen baina harriz eginikoa. Goiz guztia eman genuen bertan eta gauza bat esango dizut: nire bizitza guztian ez nuen gauza hain ederrik ikusi!
Behin eguerdia eman zuenean andereñoa hizketan hasi zen.
-Orain jateko ordua da. Hemendik aurrera ni ez nago zuen kargu, nahi baduzue nirekin bueltatu zaitezkete eta bidean jan bokadiloa. Ulertuta?
-BAI!! (denok batera).
-Bazkalostean Julen nire ondora hurbildu zen eta hau esan zidan:
-Orain, goazen, Anastasia eta Jon ere gurekin dator!
-Bai, goazen!

Herri guztia begiratzen hasi ginen baina ezertxo ere ez. Orduan eman genituen zerbait bilatzen eta azkenean iluntzen ari zela Anastasiak etxe oso arraro bat aurkitu zuen. Egurrez Eginikoa! Laurok batu ginen etxe aurrean eta sartzea erabaki genuen. Denok beldurrez dardarka geundenean Jonek eta biok gizon zahar bat aurkitu genuen ohe batean etzanda eta nik harrituta galdetu nion:
-Aitona, ongi al zaude?
Hori esan eta segidan barrutik harrizko deabru bat irten zen. Niri atakatzen etorri zen eta heldu egin zidan! Ahoa zabaldu zuen irensteko.
-Hartu ezpata!



Ilunen ahotsa zen, harrizko ezpata bat bota zidan eta nik hartu eta deabruaren ahoan sartu nuen. Deabrua hil eta hiria normala bihurtzen hasi zen, gu ordea harrituta, gertatu zenarekin negarra eginik. Bost bat minutu igarota gizon zaharraren gandik aingeru bat irteten ari zela ikusi genuen, bera gana hurbildu eta hizketan hasi zen:

- Eskerrikasko, zuei esker gure hiria berriz normala bihurtu da.
- Bai baina zer gertatzen zen?
- Gure herriko alkateak agindu bat bota zigun. Harrizkotzeak egitea bakarrik. Baina ez genekien hori egitea pekatua zenik, bakarrik nik nekien. Horregatik ez nuen egin. Baina beste guztiek egin zuten. Ondorioz deabruak hiria madarikatu zuen harrizkoa bihurtuz. Zuek deabrua hil duzue eta herria aske dago. Eskerrik asko!

Hori entzun ~~da~~ ostean herrira bueltatu ginen gertatu zitzaiguna sekretu moduan gorde.

## 5 aste geroago

Egun hura igandea zen eta armairura jatera bajatu nintzenean nire aita aldizkaria irakurtzen zegoen. Nik aldizkaria begiratu eta hauxe irakurri nuen: "Lehen harrizko hiria zegoen lekuan orain herri normal bat dago!" Barrezka hasi nintzen eta nire aitak galdetu zidan

- Zer gertatzen da?
- Ezertxo ere ez. Jajajajajaja!





Naroa Sen Musatadi Larruzea
"Saskibaloira jolastea asko gustatzen zait"

# «Ametsa ala egia»

## Ametsa Ala Egia

Bazen behin neska bat Leire deitzen zena eta 11 urte zituena
Egun batean parkean lagunekin egon zenean futboleko baloi batek buruan jo zion eta zorabiatu egin zen. Leirek, zorabiatuta zegoenean, amets bat eduki zuen. Ametsean hau agertzen zen: bera parkean zegoela eta estralurtar batzuek bera harrapatu eta planeta ezezagun batera eraman zuten espazioko ontzi biribil batean.



Ontzi honen barruan milaka argi eta botoi zeuden kolore eta forma guztietakoak.
Bidai labur bat egin ondoren, lehio batetik ikusi zuen nola heltzerakoan, planeta ezezagunean zulo baten tapa ireki zela eta ontzia bertatik sartu zela.
Han ikusi zuena harrigarria iruditu zitzaion, bertan hiri zoragarri bat baitzegoen. Etxe itzelak, bakoitzak mila piso baino gehiago, lehioetatik

Kolore desberdineko argiak irteten ziren, ez zen ikusten bertako jendea, eta ez zen zaratarik ere entzuten.

Bapatean espaziontzia etxe baten gelditu zen. Atea ireki zen eta irten zenean bere aurrean pertsonaia oso berezi bat aurkitu zuen.



Ez da erreza tipo hura deskribatzea. Gutxigora-behera bi metro zeuzkan. Ez zuen ez eskurik, ez besorik. Ezta hankarik ere.

Gorputza buru baten formakoa zuen, aurrean bi begi zituen eta atzean beste bi. Ez zuen belarririk, ezta sudurrik ere.

Ez zuen arroparik erabiltzen eta bere azalaren kolorea horia zen. Ematen zuen airean flotatzen zegoela, eta bere mugimenduak oso azkarrak ziren. Tipo hau Leirerekin hizketan hasi zen eta Leirek dena ulertzen zion nahiz eta berbarik ez egin. "Telepatiaz" komunikatzen ziren. Leire laster konturatu zen morroi hark pilo bat zekiela lurrekoei buruz.

Estralurtarrak, bere izena esan zion Leireri baina zaila zenez errepikatzeko ET izena jarri zion Leirek.

ET-ek Leireri bere alaba aurkeztu zion eta biak bakarrik geratu zirenean lagunak egin ziren. Denbora asko elkarrekin pasatu zuten eta gauza asko kontatu ziren. Leirek eguzkitako betaurrekoak eman zizkion eta lagunak harri baten antzerakoa eman zion. Harria oso bitxia eta gorria zen.



Bapatean Leirek ahots ezagun bateuk entzuten hasi zen eta esnatu zenean bere lagunen aurpegiak ikusi zituen. Denak zeuden arduraturik, baina Leire guztiz kontra, oso pozik, zeren amets oso polita eduki zuen. Etxera joan zenean eta giltzak ateratzerakoan poltsikoan harri bitxia aurkitu zuen. Eta azkenean Leire dudatan jarri zen ea ametsa egia ala gezurra izan ote zen!

Naroa Musatadi



Oihane Lopez Bilbao
"Niri marraztea eta dantza egitea gustatzen zait"

# «Xokoaren izena»

## XOKOAREN IZENA

Bazen behin Xokoa izeneko neskatila bat. 11 urte zituen eta San Fidel ikastolan ikasten zuen. Xokoa neska zintzoa, lasaia eta irribarretsua zen.

Xokoa 6.A taldean zegoen eta ikasturte hasiera irakasle berria izan zuten. Ikasleen zerrenda pasatzerakoan, txarto ahoskatzen zuen bere izena eta horregatik gelakideak burla egiten hasi zitzaizkion irakasleak bere izena aipatzen zuen bakoitzean.

Behin, negarrez zebilela jolastokian, neskatila bat hurbildu zen beregana. Simen zuen izena eta alboko gelako ikaslea zen.

- Zergatik zaude negarrez? - galdetu zion.
- Nire gelakoek burla egiten didatelako - erantzun zion Xokoak.

Egun batzuk pasa ondoren, lagun minak egin ziren eta beti elkarrekin egoten ziren. Behin, plan bat asmatu zuten Xokoaren gelakideak izorratzeko. Simenek pentsatu zuen burla egiten ziotenean bakoitzean koldar hutsak zirela esango ziela Xokoak, denak baten aurka aritzen zirelako. Baina hobeto pentsatu eta gero, Xokoak esan zion Simeneri plan hura txarra zela, berari ez zitzaiolako gustatzen inori burla egitea eta min ematea. Gelakideei ez burlatzeko eta bere izenarengatik barregarik ez egiteko eskatzea pentsatu zuten. Baina laster konturatu ziren horrek ere ez zuela arazoa konponduko besteak oso gaiztoak zirelako.

- Esaiozu tutoreari gelakoek burla egiten dizutela - esan zion orduan Simenek.
- Ez naiz ausartzen - erantzun zuen Xokoak.

- Zergatik ez? - Galdetu zuen Simenek.

- Gero bronka bota edo zigortzen badiztu, Kalean itxaron eta jo egingo nauten beldur naizelako.

- Beharbada arrazoia duzu. Hain diren gaiztoak! - esan zuen Simenek.

Egun batean gelakideak berengana hurbildu eta beraz ezer esan barik "Patito feo" hasi zuen deitzen. Hain minduta egon zenez, bere amari kontatu zion guztia. Orduan bere amak besteen burlei ez egiteko kasurik esan zion. Bere bihotzak eta sentimenduek esaten ziotena kontuan hartzeko aholkatu zion, bazekielako bere alaba bihotz onekoa zela. Hurrengo egunean jolastorduan Simenesekin elkartu zenean, amarekin izandako elkarrizketa kontatu zion.



- Eta zer egitea pentsatu duzu orain? - galdetu zion Simenek.

- Uste dut amak arrazoia duela. Gurasoek jarri zidaten izena, beraientzat Xokoa izena polita zelako. Zergaitik kezkatu gelakoek nire izena dela eta jarri egiten badidate ere? Niri gustatzen zait eta kito - erantzun zion Xokoak.

Hurrengo egunetan ere klasean zegoenean burla egiten jarraitzen zioten. Baina Xokoa jadanik ez zen haserretzen eta gainera ez zitzaiola inporta zidurien. Laster konturatu zen amak emandako aholkua jarraituz hobeto sentitzen zela.

Klaseak amaitzen ziren bakoitzean Simenerekin elkartzen zen eta gustura egoten ziren biak batera.

Denbora pasatu ahala gelakideak konturatu ziren Xokoa aldatuta zegoela, nahiz eta eurek burla egin ez zela jasamonik egiten. Orduan ohartu ziren portaera txarra izan zutela Xokoarekin eta berak ez zuela merezi horrela tratatzerik. Gertatutakoaren ondorioz euren portaeraz lotsatuta sentitu ziren eta konturatu ziren asko zutela Xokoarengandik ikasteko.

- Xokoa, parkatu mesedez denbora guzti honetan zuri burla egiten aritzeagaitik. Umemoko moduan portatu izan gara, baina orain zurekin adiskidetzea nahi genuke - esan zion gelakide batek talde osoaren izenean.

- Uste dut denok ikasi dugula zerbait kontu honekin. Parkatuta zaudete - erantzun zion Xokoak.

Aurrerantzean Xokoa eta Simene ez ziren bakarrik egoten, denak elkartzen ziren jolasteko.





## Gorka Arrola Zubiaga

"Niri gustatzen zaizkidan gauzak dira futbolera jolastea, lagunekin irten eta nire txakurrarekin jolastea"

# «Udarik onena»

UDARIK ONENA

Peru hamar urteko mutiltxo bat zen, Madrid-en bizi zen. Egunero eskolatik irten eta lanak egin ondoren bere makina-txoekin jolasten zuen (Play station 4). Bere gurasoak arduraturik zeuden lagunik ez zuelako. Udako oporrak heldu zirenean bere aitak eta amak aitona-amonen etxera eramatea erabaki zuten beraiek lana zutelako. Peruren aitona eta amona Gorbeia mendian bizi ziren. Peruk ez zuen nahi Gorbeiara joan, bertan aspertu egiten zelako.

Gorbeia mendira heldu zenean Peru triste zegoen eta egun bitan ez zen etxetik irten. Egunak igaro ondoren hasi zen bere aitona Jose eta amona Josefinarekin baserriko lanak egiten; ardiari jaten eman, arrautzak etxera eraman, lorei ura bota eta abar.
Egun batean Mikel ezagutu zuen, 11 urteko mutiltxo bat zen eta Peru bezala aitona-amonekin

uda pasatzen zegoen. Amona biak lagunak ziren eta arratsaldero gelditzen ziren kafetxo bat hartu eta briskara jolasteko.
Peru eta Mikel lagunak egin ziren eta ohetik jaiki ondoren elkartzen ziren jolasteko.

Egun batean jolasten zeudela tximeleta pila bat igaro zen beraien ondotik. Tximeleten atzean zihoazela basoan azeri zauri bat aurkitu zuten. Azeriari beraien bokadiloa eman zioten eta zauria ur garbiarekin garbitu eta zapi batekin estali zioten.
Hurrengo egunean azeriarengana joan zirenean konturatu ziren azeriak bi kume zituela eta denentzako janaria eraman zuten.
Hurrengo asterako azeria osatuta zegoen eta mutiltxoen lagun handia egin zen.

Uda amaitu eta berriro Madrid-era joan zenean bere ikastolan Mikel ere zegoen eta Mikeli ezker lagun gehiago egin zituen.
Ordutik aurrera uda guztiak Gorbeia mendian pasatzen zituen



GERNIKA
LUMO
gure sustraiak

**GERNIKA-LUMOKO UDALA**
Hezkuntza Saila
Euskera Zerbitzua

gernika-lumoko
euskara zerbitzua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**KULTURA SAILA (HPS)**

BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia